

LEGAZPI / Desberdintasunak aberasgarriak direla dio erakusketa batek

Urtarril osoan ikusgai dago 'Tunela, desberdintasunak aberasten gaitu' erakusketa didaktikoa kultur etxean

Miriam Luki

Tunela, desberdintasunak aberasten gaitu erakusketa ikusgai dago Legazpiko kultur etxean. Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunei begiratzen dio udal liburutegiak ekarritako erakusketa horrek. Urtarrilaren 31ra arte irekita egongo da kultur etxean bertan, 17:30etik 20:30ra. Guraso, irakasle eta ikasleentzat ere bisita didaktikoak prestatu dituzte. Erakusketan Anthony Browne idazle ingelesaren Tunela liburuan oinarritutako testuak eta marrazkiak ikus daitezke. Elkarren antzarik ez duten anaia eta arreba dira protagonistak. Printzipioz gizon eta emakumeen ustezko paperak argi eta garbi betetzen dituztenak. Istorioak, ordea, erakusteko beste ezer badu emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunei buruz.

Legazpiko udal Hezkuntza sailak eta Udal Liburutegiak Euskal Herriko beste hainbat liburutegirekin batera antolatu duen bigarren erakusketa da. Lehenengoa 2004. urtean izan zen, Juul erakusketarekin; dinamika bera jarraitu zuten ordukoak. Iraintzea hitzez jotzea dela adieraztea zuen helburu bilduma hark.

Erakusketa ikusteko ohiko ordutegiaz gain bisita didaktikoak ere antolatu dituzte herriko ikastetxeekin. Bisita horietan, ipuin-kontalari batek ipuina kontatu ondoren, banakako eta taldekako jarduerak egingo dituzte liburuaren gaia lantzeko. Tartean, gizartean indarrean dauden neska eta mutil ereduak, gizon eta emakumeen paperak, feminitatea eta maskulinitasuna... Hori guztia Oihana Etxegibel begiralearen gidaritzapean egingo dute bisitariek.

Dena dela, erakusketara joaten direnei ez zaie ezer erakutsiko, ez zaie eskola bat emango. Ipuinak eta marrazkiak ikusi, tunelera sartu eta gero euren kabuz gogoeta egitea eta eztabaida sortzea da helburua. Bisita horietan ikastetxe guztietako Lehen Hezkuntzako 4, 5 eta 6. mailakoak eta DBHko lehenengo mailako ikasleek parte hartuko dute. Irakasleek eta gurasoek ere bisitak hasi dituzte jada. Gurasoentzako hurrengo saioa ostiralean egingo dute, eta interesa dutenek izena emateko etzi izango dute azken eguna.

Erakusketa Gijongo Kulturaren Udal Fundazioak utzitakoa da, eta 19 paneletan biltzen ditu Anthony Browneren Tunela liburuko ilustrazioak. Liburuan adierazten den tunela ere fisikoki erakusketan ikus daiteke, bilduma osatzen duten ataletakoa baita.